

EIBARKO UDALAK
ESTABLEZIMENDUETAKO ERROTULUAK,
INSKRIPZIOAK ETA IRUDI
KORPORATIBOKO ELEMENTUAK
EUSKARAZ EDO ELEBIETAN JARTZEKO
DIRU-LAGUNTZAK EBALUAZIO
BAKOIZTUAREN ARAUBIDEZ ZUZENEAN
EMATEKO PROZEDURA BITARTEZ
ESLEITZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1. ARTIKULUA: Oinarrien helburua.

Oinarri hauek, Eibarko Udalak “Ebaluazio bakoiztuaren araubidez zuzenean ematea” prozedura bidez Establezimenduetako errotulazioa, inskripzioak eta irudi korporatiboko elementuak euskaraz edota ele bietan jartzeko emango duen diru-laguntza arautzea dute xede. Horrela Eibarko establezimenduetako irudi linguistikoa euskaldunduko da.

2. ARTIKULUA: Onuradunek diru-laguntza eskuratzeko bete behar dituzten baldintzak.

Diru-laguntza hauek, pertsona fisikoek zein juridikoek jaso ditzakete, Eibarren jarduera ekonomikoak edo industrialak burutzen dituzten negozioen titularrak badira, baita egoitzak Eibarren dituzten elkarteek ere, baldin eta DLOren 13.2 artikulua ezartzen dituen debeku horietako baten sartzen ez badira.

Bete beharreo baldintzak:

- Establezimenduak beharrezko lizentzia izatea
- Bai errotulurako, bai inskripzioetarako, bai irudi korporatiboetako elementuetarako diru-laguntza eskatzen bada, testoak euskaraz edo ele bietan egon beharko dira zuzen eta egoki idatzita
- Ez da diru-laguntzarik emango errotulua, inskripzioak edota irudi korporatiboko elementuetan izen propioa edo marka bakarrik agertzen bada. Langintza motaren edo jarduera profesionalaren adierazlea hartuko da kontuan

BASES REGULADORAS PARA LA
CONCESIÓN POR PARTE DEL
AYUNTAMIENTO DE EIBAR DE
SUBVENCIONES PARA LA INSTALACIÓN
DE RÓTULOS, INSCRIPCIONES Y
ELEMENTOS QUE COMPONEN LA IMAGEN
CORPORATIVA EN EUSKERA O EN
BILINGÜE EN ESTABLECIMIENTOS
MEDIANTE EL PROCEDIMIENTO DE
CONCESIÓN DIRECTA EN RÉGIMEN DE
EVALUACIÓN INDIVIDUALIZADA

ARTÍCULO 1: Objeto de las bases.

El objeto de las presentes bases es regular el conjunto de subvenciones a otorgar por el Ayuntamiento de Eibar para la instalación de rótulos y/o elementos que componen la imagen corporativa en euskera o en bilingüe mediante el procedimiento de “Concesión directa en régimen de evaluación individualizada” y de esa forma euskaldunizar la imagen lingüística de los establecimientos de Eibar.

ARTÍCULO 2: Requisitos que deben reunir los/as beneficiarios/as para obtener la subvención.

Podrán acceder a estas subvenciones, las personas físicas o jurídicas que no incurran en ninguna de las prohibiciones que se establecen en el artículo 13.2 de la LGS, titulares de negocios en establecimientos en los que se ejerzan actividades comerciales o industriales, así como las asociaciones con establecimiento abierto en la localidad.

Requisitos a cumplir:

- El establecimiento deberá tener la correspondiente licencia
- Tanto en el caso de que se solicite subvención para rótulo, inscripciones o elementos de la imagen corporativa, los textos deberán estar redactado en euskera o en euskera y castellano de manera correcta y adecuada
- No se concederá subvención alguna en el caso de que los rótulos, inscripciones o los elementos de la imagen corporativa contengan solamente un nombre propio o marca; se tendrá en cuenta la referencia a la actividad profesional o tipo de trabajo

- Udalak eskatzaile bakoitzari behin bakarrik emango dio diru-laguntza kontzeptu bakoitzeko (errotulua, inskripzioak, irudi korporatiboko elementuak). Onuradunak, bere aldetik, konpromisoa hartuko du diruz lagundutako errotuluak, inskripzioak edota irudi korporatiboko elementuak euskaraz edo ele bietan izaten jarraituko duela hortik aurrera.
- El ayuntamiento concederá una única subvención para cada uno de los conceptos (rótulo, inscripción, elementos de imagen corporativa) al solicitante. El beneficiario por su parte se comprometerá a mantener en adelante el rótulo, inscripciones y elementos de la imagen corporativa en euskera o bilingüe

DLOren 23.3 artikuluko e) hizkiak dioena betez, deialdi bakoitzak zehaztuko du baldintzak zein modutan egiaztatuko diren; hori dela eta, eskaerekin batera ekarri behar diren dokumentuak eta argibideak ere deialdiak berak aipatuko ditu.

3. ARTIKULUA: Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

Diru-laguntza eskaerak izenpetuko dituztenak eurak interesatuak izango dira, edo, eurak izan ezean, zuzenbidean balioa duen beste edozein baliabide erabilita ordezkapena egiaztatzen duten pertsonak. Deialdi bakoitzean ezarriko dira bidezkoak diren eskabide-ereduak.

Eskaerak aurkezteko epea kasu bakoitzerako deialdiak ezartzen duena izango da.

4. ARTIKULUA: Diru-laguntza emateko prozedura.

Diru-laguntza emateko prozedura zuzenean ematekoa izango da, ebaluazio bakoitzuaren araubideari jarraikiz, Eibarko Udalaren Diru-laguntzeta-rako Ordenantza Orokorrak aurreikusituen duena.

Prozedurari ofizios ekingo zaio dagokion deialdiaren bidez; deialdiak DLOren 23.2 artikulua ezarritako edukia izango du, aldez aurretik gastu onarpenaren kalte gabe, lege horren 34.1 artikulua aipatu bezala.

Diru-laguntzak emateko araubide honetan, aurrekontu-kreditua agortu eta eskabideak erantzuteke geratzen badira, organo eskudunak hala erabakiz gero, ebatzi ez diren eskaera horiei erantzuteko, diru-laguntzak egozten zaizkion aurrekontuaren kontu-saila gehitu egin daiteke.

Las correspondientes convocatorias concretarán la forma de acreditar los requisitos, en cumplimiento del artículo 23.2, letra e) de la LGS, a cuyo efecto indicarán los documentos e informaciones que han de acompañarse a las solicitudes.

ARTÍCULO 3: Forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.

Las solicitudes de subvenciones se suscribirán por los/as interesados/as directamente o por personas que acrediten su representación por cualquier medio válido en derecho. En las correspondientes convocatorias se establecerán los modelos pertinentes de solicitud.

El plazo de presentación de solicitudes será el que, en cada caso, se establezca en la convocatoria.

ARTÍCULO 4: Procedimiento de concesión.

El procedimiento de concesión de la subvención será el de concesión directa en régimen de evaluación individualizada previsto en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar.

El procedimiento se iniciará de oficio mediante la correspondiente convocatoria que tendrá el contenido establecido en el artículo 23.2 de la LGS, sin perjuicio de la previa aprobación del gasto a que se refiere el artículo 34.1 de dicha ley.

En este régimen de concesión de subvenciones, si una vez agotado el crédito presupuestario existen solicitudes sin atender, y en el caso de que así se acuerde por el órgano competente, se podrá ampliar la partida presupuestaria a la que están imputadas las subvenciones para atender las no resueltas.

Edozelan ere, aurreko paragrafoan adierazita-koaz aparte, deialdi batean krediturik ez egote-agatik ebatzi ezin izan diren diru-laguntza eska-bideak hurrengo deialdian sar daitezke; kasu horretan lehentasuna edukiko lukete tramitatze-rakoan.

5. ARTIKULUA: Diru-laguntzak emateko iriz-pideak.

Diru-laguntzak emateko prozedura honetan, es-pedienteak aurkeztu ahala tramitatzeko eta e-bazten joango dira (deialdian aurreikusitako e-pearen barruan) horretarako aurrekontu-kredi-tua dagoen bitartean; diru-laguntza eskatzen di-ren baldintza guztiak betetzen dituzten eskatza-i-leei emango zaie eta bakoitzari emango zaion zenbatekoa oinarri hauen 7. artikulua aipatzen dituen irizpideak aplikatuz ateratzen dena izango da.

6. ARTIKULUA: Deitutako diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa edo zenbateko zen-batetsia.

Deialdietan diru-laguntzen zenbatekoa adierazi egingo da, beti ere diru-laguntzak egozten zaiz-kion aurrekontu-kredituen muga aintzat hartuta, diru-laguntzak gehieneko zenbateko osoaren izaera edukiko baitute.

7. ARTIKULUA: Diru-laguntzetan bakoitzari dagokion zenbatekoa edo zenbateko zehaz-teko irizpideak.

Eskatzaile bakoitzari eman dakiokkeen gehie-neko diru-laguntza -deialdiak dakarren zenba-teko horren esparru barruan- deialdi bakoitzak ezartzen duena izango da eta sekula ere ezingo da izan aukeratu den jarduerak, proiektuak edo programak duen kostutik gorakoa.

8. ARTIKULUA: Diru-laguntza emateko pro-zedura eratu, bideratu eta ebazteko esku-mena duten organoak.

Diru-laguntza eratu, bideratu eta ebazteko es-kumena duten organoak Eibarko Udalaren Diru-laguntzetarako Ordenantza Orokorrak ezartzen dituenak dira.

9. ARTIKULUA: Ebazpenaren edukia eta ebazpena jakinarazteko epea.

Con independencia de lo indicado en el párrafo anterior, las solicitudes de subvención que no hayan podido ser resueltas en una convocatoria por inexistencia de crédito, podrán trasladarse a la siguiente, gozando de prioridad en su trami-tación.

ARTÍCULO 5: Criterios de otorgamiento de las subvenciones.

En este procedimiento de concesión de subven-ciones, los expedientes serán tramitados y re-sueltos conforme se vayan presentando (dentro del plazo previsto en la convocatoria) y en tanto se disponga de crédito presupuestario para ello, otorgándose la subvención a los/as solicitantes que cumplan los requisitos para su concesión y por los importes resultantes de la aplicación de los criterios señalados en el artículo 7 de estas bases.

ARTÍCULO 6: Cuantía máxima o estimada de las subvenciones convocadas.

En las respectivas convocatorias se indicará la cuantía de las subvenciones convocadas, siem-pre teniendo en cuenta el límite de los créditos a los que han de imputarse las subvenciones, que tendrán el carácter de cuantía máxima.

ARTÍCULO 7: Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determina-ción.

El importe máximo de la subvención que puede otorgarse a cada solicitante, dentro de la cuan-tía convocada, será el que se establece en cada convocatoria y nunca podrá superar el costo de la actividad, proyecto o programa seleccionado.

ARTÍCULO 8: Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subven-ción.

Los órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución de la subvención son los que se establecen en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar.

ARTÍCULO 9: Contenido y plazo en que será notificada la resolución.

Diru-laguntza emateko ebazpenak –arrazoiak ematerakoan, onuradunak oinarri arau-emai-leak eta deialdiaren baldintzak bete egiten ditu-ela aipatu behar du– diru-laguntza nori ematen zaion eta ematen zaion zenbatekoa adierazi be-har du.

Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehie-neko epea, eskaera egiten den egunetik zenba-tuta, sei hilabetekoa izango da. DLOaren 25.5 artikulua araberan, ebazpena jakinarazteke izan eta gehieneko epearen mugaeguna iristek interesatuei legezatasuna ematen die diru-la-guntza eskabideari administrazio-isiltasunez ezetza eman zaiola ulertzeko.

10. ARTIKULUA: Emandako diru-laguntzen publizitatea.

Diru-laguntzetako Lege Orokorrean aurreikusita dagoen moduan iragarriko da zer diru-laguntza eman diren.

11. ARTIKULUA: Onuradunak jaso duen diru-laguntzari eman behar dion zabalkun-dea.

Diru-laguntza hauen izaera berezia kontuan hartuta onuradunari ez zaio exijituko diru-lagun-tzaren publizitaterik.

12. ARTIKULUA: Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

DLOren 31. artikulua egiten dituen aurreikus-penen babespean, ondoko gastu hauek hartuko dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat:

- Errotulo nagusia
- Kanpoko eta barruko inskripzio finkoak
- Irudi korporatiboko elementuak: poltsak, biltzeko papera, zigilua, sobreak....

13. ARTIKULUA: Onuradunak, diru-laguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen justifi-katzeko duen epea.

Oinarri hauetan azaltzen diren ordainketa-mo-dua zein delarik ere justifikazioa edo zuribidea aurkezteko epea dagokion deialdian finkatuko da, interesatuek hala eskatuz gero eman daite-keen luzapenaren kalte gabe.

La resolución de concesión, que hará referencia a efectos de motivación al cumplimiento de las bases reguladoras y de las condiciones de la convocatoria, deberá expresar el/la beneficiario/a al que se otorga la subvención y su cuantía.

El plazo máximo para la resolución y notificación del procedimiento será de seis meses desde la fecha de solicitud de la subvención. De acuerdo con el artículo 25.5 de la LGS, el vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución legítima a los/as interesados/as para entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión de la subvención.

ARTÍCULO 10: Publicidad de las subvenciones concedidas.

La publicidad de las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Eibar se realizará en la forma prevista en la Ley General de Subvenciones

ARTÍCULO 11: Difusión de la subvención concedida por parte de el/la beneficiario/a.

Dado el especial carácter de estas subvenciones, no se exigirá la publicidad de la subvención por parte de el/la beneficiario/a.

ARTÍCULO 12: Gastos subvencionables.

Al amparo de las previsiones del artículo 31 de la LGS se considerarán gastos subvencionables los siguientes:

- Rótulo principal
- Inscripciones fijas exteriores e interiores
- Elementos de imagen corporativa: bolsas, papel de envolver, sello, sobres...

ARTÍCULO 13: Plazo ordinario de justificación por parte de el/la beneficiario/a del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

Cualquiera que sea la forma de pago de las contempladas en estas bases, el plazo para presentar la justificación será fijado en la corres-

Kobratzeko baldintzatzat ez da behar izango egindako gastua hartzekodunei ordaindu zaiela egiaztatzerik. Hala ere, diru-laguntza eman duen Administrazioak eta Udal Kontu-hartzailetzak hori gerora begiratu edo egiaztatu dezakete oinarri hauetan aurreikusitako ondorioekin.

14. ARTIKULUA: Aurretik justifikazioa ekarrita egingo diren ordainketak

Justifikazioa edo zuribidea oinarri hauetan aurreikusitako moduan eta bertan adierazitako baldintzetan aurkeztea eta DLOEko 84. artikulua ezartzen duen eran egiaztatzea derrigorrezko baldintza izango da onuradunaren aldeko betebeharra aitortu eta ordaindu ahal izateko, konturako ordainketa edo ordainketa aurreratua egiteko baimena ematen den kasuetan izan ezik, ondoko atal bi hauetan azaldutakoaren eran egingo lirartekeenak.

15. ARTIKULUA.- Onuradunak duen modua diru-laguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen argitzeko.

JUSTIFIKAZIO KONTUAK balio juridikoko dokumentu-izaera edukiko du diru-laguntza justifikatzeko orduan DLOE-ko 75. artikulua eta deialdiak berak aurreikusitako edukiarekin.

Dena dela, DLOE-ko 72.3 artikulua ezarritakoaren babespean, diru-laguntzaren helburuagatik edo izaeragatik aurreko atal horretan aurreikusitako dokumentazioa aurkezteko beharrik edo premiarik ez balego, deialdian bertan azalduko da justifikatzeko modua zein den, Administrazioak DLOE-ko 85. artikulua ezarritako lau urteko epe horretan egin dezakeen egiaztapen materialaren kaltetan gabe.

16. ARTIKULUA: Ebazpenaren aldaketa ekar dezaketen inguruabarrak, diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu diren baldintzak aldatu izanaren ondorioz sortuak.

Onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, diru-laguntza eman duen organoari, ebazpenaren aldaketa

pondiente convocatoria, sin perjuicio de la prórroga que pudiera concederse a solicitud de los/as interesados/as.

No será necesario, como requisito para el cobro, acreditar el pago a los acreedores por razón del gasto realizado. No obstante, la Administración concedente y la Intervención Municipal podrán comprobar ulteriormente este extremo con las consecuencias previstas en estas bases

ARTÍCULO 14: Pagos a realizar previa aportación de la justificación

La presentación de la justificación, en la forma y con los requisitos previstos en estas bases, y su comprobación de conformidad en los términos establecidos en el artículo 84 del RLGS, será condición indispensable para que pueda procederse al reconocimiento de la obligación y su pago a favor del beneficiario y a su pago, excepto en los supuestos en que, de acuerdo con las previsiones de los dos apartados siguientes, se autoricen los pagos anticipados.

ARTÍCULO 15: Forma de justificación por parte de el/la beneficiario/a del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

Tendrá carácter de documento con validez jurídica para la justificación de la subvención la CUENTA JUSTIFICATIVA con el contenido previsto en el artículo 75 del RLGS y en la convocatoria.

No obstante lo anterior, al amparo de lo dispuesto en el artículo 72.3 del RLGS, cuando por razón del objeto o de la naturaleza de la subvención, no fuera preciso presentar la documentación prevista en el apartado anterior, en la propia convocatoria se expresará la forma de justificación, sin perjuicio de la comprobación material que podrá practicar la Administración en el plazo de cuatro años establecido en el artículo 85 del RLGS.

ARTÍCULO 16: Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.

Los/as beneficiarios/as podrán solicitar del órgano concedente, antes de que concluya el

egitea, emandako diru-kopurua murriztea edo aldaketa edo jardueran sartzen diren ekintzen aldaketa egitea eska diezaiokete; aldaketa horiek baietza jasoko dute ezusteko baten ondorioz sortuak izan badira edo jarduera ondo burutzeko beharrezkoak egiten badira, baldin eta diru-laguntzaren helburua edo xedea aldatzen ez bada eta inoren eskubideak kaltetzen ez badira.

Diru-laguntza eman duen organoak ofizioz alda dezake diru-laguntza ematen duen ebazpena, alde zuzenetik interesatuari entzunaldia eskainita eta dirua erabili baino lehen, baldin eta dirua emateko kontuan hartu izan diren baldintzen aldaketek lortu nahi den interes publikoaren lorpena zailtzen edo eragozten dutenean eta aldaketa horrek onuradunari kalte ekonomikorik ez dakarkionean.

Diru-laguntzaren onuradunak, justifikazioa egiterakoan, diru-laguntza eman zitzaionean kontuan hartu ziren baldintzetan aldaketak izan direla agerian jartzen duenean -diru-laguntza emateko ebazpenaren aldaketa ekar dezaketenak eta onartuak izan zitezkeen aurretiaz beharrezkoa den administrazio-baimenaren tramitea bete izan ez dutenak-, diru-laguntza eman duen organoak onartu egingo du aurkeztutako justifikazioa, baina onarpen horrek ez du onuraduna Diru-laguntzetarako Lege Orokorraren arabera legezkiokkeen zehapenetatik salbuetsiko.

17. ARTIKULUA: Bateragarritasuna edo bateragarritasun eza helburu berbererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein Administrazioetik edo erakunde publikoetatik zein pribatuetatik etorri, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorri.

Diru-laguntzak bateraezinak izango dira helburu berbererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein Administrazioetik edo erakunde publikoetatik zein pribatuetatik etorri, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik etorri.

18. ARTIKULUA: Diru-laguntzak ematera koan ezarritako baldintzetan egon daitezkeen ez betetzeak mailakatzeko irizpideak, horrelakoetan onuradunak azkenean jasoko

plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros.

El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia del interesado y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos al beneficiario.

Cuando el/la beneficiario/a de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución conforme a lo indicado habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención aceptará la justificación presentada, sin que ello exima al beneficiario de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Ley General de Subvenciones.

ARTÍCULO 17 Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Las subvenciones serán incompatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

ARTÍCULO 18: Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones a efectos de determinar

lukeen zenbatekoa zehaztu ahal izateko, edo hala balitz kasua, itzuli beharko lukeen zenbatekoa zehazteko.

Diru-laguntzak emateko ezarrita zeuden baldintzetatik edozein DLOaren 37. artikulua ezarritako moduan betetzeke uzteak edo baldintza sasoz kanpo bete izateak -lortu nahi den helburu publikoa eskuratzeko baldintza guztiak betetzea edo epea betetzea erabakigarria den kasuetan- eskubide osoa erabat galtzea, eta hala balegoke, jasotako dirua itzuli beharra ekarriko luke.

Diru-laguntza kobratu ondoren, Administrazioaren zerbizuen aldetik egiaztapen bat edo finantza kontrol bat egin eta egindako gastu guztiak edo gastuen zati bat ez dela ordaindu agerian geratuko balitz, hartzekodunen aldetik galdagarriak diren gastuak, dirua itzultzeko agindua emango da proportzionaltasunaren printzipioa erabilita; hartara, ordaindu gabe geratu diren gastuen proportzio berean hartuko da itzulgarritzat emandako diru-laguntza.

19. ARTIKULUA. Administrazio arau-haustek eta zehazpenak diru-laguntzen arloan. Zehapen-prozedura.

Gai horretan, EIBARKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ORDENANTZA OROKORRAREN VI. TITULUAK ezarritakoa izango da aintzat hartuko dena.

la cantidad que finalmente haya de percibir el beneficiario o, en su caso, el importe a reintegrar.

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones en los términos establecidos en el art. 37 de la LGS o su cumplimiento extemporáneo, cuando el cumplimiento total de las condiciones o del plazo fuera determinante para la consecución del fin público perseguido, será causa de pérdida total del derecho y de reintegro, en su caso.

Si en la realización de una comprobación o control financiero por los servicios de la Administración se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos impagados.

ARTICULO 19: Infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones. Procedimiento sancionador.

En esta materia se estará a lo dispuesto en el TÍTULO VI de la ORDENANZA GENERAL DE SUBVENCIONES DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE EIBAR.